

FAMILIA ETA GURASOTASUNA

Gurasotasunak jokabide bati egiten dio erreferentzia. Jokabide hori *umearen interes gorenean oinarritzen da; umearen gaitasunak zaintzen eta garatzen dituen jokabidea da, indarkeria erabiltzen ez duena, ezagutza nahiz orientazioa eskaintzen dituena eta umearen garapen osoa oztopatuko ez duten mugak ezartzen dituena.*” (Osasun Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa).

Gurasotasuna haurren beharrianen errespetuan eta haurren garapena bultzatuko duten ekintzak martxan jartzean oinarritzen da, hala nola, atxikimendua indartzea, jolasaren bitartez harremana sustatzea, gatazkarik gabeko komunikazioa bultzatzea...; horretarako familia bakoitzaren testuingurua eta aitaren edo/eta amaren trebetasunak hartuko dira aintzat.

Gogoratu behar da, haurrei emandako tratu onek garapen eta ongizate egokia dakarkiola. Haurrek behar asko dituzte: arreta, errespetua, heziketa, arauak, maitasuna,... eta familiek haurren beharren aurrean sentikorrak izan behar dute. Behar horiek asetzeak ekarri du haurrak autoestimu ona izango duen pertsona garatzea, gizartean era osasuntsu eta zorionsuan haziz.

Hala eta guztiz ere, guraso izateko lana ez da gurasoen ezaugarrien araberakoa soilik, hau da, ez da bakarrik adingabeen hezkuntza- eta eboluzio-beharrei erantzuteko gurasoek dituzten gaitasun eta trebezien araberakoa, familia-testuinguruko beste baldintza batzuek ere eragina baitute (familiaren testuinguru psikosoziala). Hala bada, babes-faktoreen eta arriskuaren arteko konbinazioen araberakoak izango dira. Arrisku-faktoreek guraso izateko lana zailtzen dute eta zenbaitetan bestelako zailtasunak agertzen dira, zailtasun sozioekonomikoak, esaterako. Aitzitik, babes-faktoreek estresagarri horiei aurre egiteko baliabideez nahiz gaitasunez hornitzen dituzte familiak.

Aurreko guztia kontuan hartuta, seme-alabak hezterakoan garrantzitsua da jarrera positiboa izatea euren garapen potentziala eta ongizatea optimizatzeko. Horretarako, beharrezkoa da konpromisoa, inplikazioa eta erantzukizuna areagotzea, baita gurasoek hezteko eta gida izateko duten gaitasuna handitzea ere. Gainera, familia-ingurunean konfiantzarako, komunikaziorako, afekturako eta segurtasunerako espazioak sortzea ere garrantzitsua da, baita eguneroko zereginetan arauak, mugak, errutinak eta ohiturak ezartzea edota jokabidea zaintzea eta kontrolatzea (euren lorpenak aintzat hartu eta baloratzea eta euren akatsen edo jokabideen erantzule egitea).

LABURPENA

Aita edo ama izatea ez da lan erraza. Lehenik eta behin, aita edo ama bihurtzeak hezkuntzako bizi-proiektu bat martxan jartzea esan nahi du eta horrek, halaber, gurasotasuneranzko trantsizioarekin hasten den prozesu luzea dakar, seme-alaba txikien haziera- eta gizarteratze-jarduerekin jarraitzen du, geroago nerabezaroan eskaini behar zaien laguntzarekin, ondoren etxetik

ateratzeko prozesuarekin eta azkenik, biloben bidezko bigarren topaketarekin bukatzen da. Bigarrenik, prozesu horretatik eratortzen den inplikazio emozionalean eta pertsonalean sartzea esan nahi du eta azkenik, hezkuntza-proiektua edukiz betetzea hazkuntza eta hezkuntza prozesu horretan guztian zehar.

ETXADI

Familia-psikologia Unibertsitate-zentroa

Centro Universitario de Psicología de la Familia